



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN 2000-KO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Entitateen 2000ko urtealdiari dagokion txostena mamitu du.

Erakunde fiskalizatzaileak EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen Kontu Orokorrak aztertu ditu eta toki alorraren eduki formala eta finantza egoera balio-neurtu. 250 udaletatik 245 udalen Kontuak eta udalaz gaindiko 57 entitateetatik 53ren Kontuak aztertu dituzte. Asteasuko udalak eskatutako informazioa osagabe igorri du eta Galdakao, Ondarroa, Harana eta Anoetako udalek, berriz, ez dizkiote kontuak HKEEri aurkeztu.

Udalek duten finantza egoerari dagokionez, txostenak funtzionamendu gastuen goraldia azaleratu du, finantza zama murriztearekin berdinkatu dena.

Inbertsio garbi globalak behera egin duela eta hori finantzatzeko dirulaguntzak igo egin direla ere azpimarratu du.

Halaber, zerga, tasa eta prezio publikoek eragindako sarrerak %4,81 gehitu dira 1999ko urtealdiaren aldean.

Bestetik, 2000ko urtarrilaren 1a baino lehenago aurrekontuak 20 udalek baizik ez dituztela onartu ere berariaz jaso du txostenak.

Kontu Orokorraren onarpenari dagokionez, 131 udalek arautegiak agintzen duen epean oniritzi dute, 77k epez kanpo eta 37 udaletan, berriz, ez dago onartu izanaren egiaztagiririk.